



TXILLARDEGI

## leizearen zolatik

**I**ñigo Kastresana atxilotu dute Gasteiz-en; eta behin eta berriz udaltzainari euskaraz mintzatu zaiolako, egia sandu hau entzun du: «aquí el único extranjero eres tú».

Eta egia besterik ez diote esan: gaurko «Euskadi» autonomiko eta transferentzi-gabe honetan, atzerrian bizi gara euskaldunok.

Eta, horretara, abertzaleok nahi eta espero baino aguroago ahanzi den Eustakio Mendizabal gizarajo haren hitza bete da:

«Arrotz antza nabil neure herrian»

Geure etxean arrotz eta bigarren mailako hiritar: hauxe da balantzea.

Zeren-eta heranegun Kastresanari Gasteiz-en gertatu zitzaiona, beste mila lekutan gertatzen baitzaigu egunero, aspertu eta gogaitu ere arte: «Habla en cristiano», «Seamos operativos y hablemos en erdera», eta abar, eta mila aldiz abar. Ukatuta eta zapalduta gaude geure euskaltasunean egunero eta minutu oro; eta hau bai etsaien artean, bai «Euskadi» hitza barra-barra erabiltzen dutenen artean ere.

Eta etendura mamitua da. Eta hauxe da larriena: euskara sinbolo bihurtu da. Alegia, gugandik AT dagoen zerbait, herritik beretik AT dagoen «gauza» bat. Euskararen alde (?) egon daiteke, jakina, nahiz euskara inolaz ere nortzeko asmorik ez izan; ikurriña jateko edo jazteko asmorik ez izanik ere, ikurriñaren alde egon daitekeen bezalaxe.

Cuerdak, esate baterako, «Korrika»ren martimuiloa eraman dezake, nahiz asmo mendrenik ere ez izan bera euskalduntzeko, ez Gasteiz-ko udaletxea inoiz euskaraz jartzeko, ezta udaltzain gisa ultraespañolistei bidea hesteko ere. Cuerda euskararen alde egon daiteke. Andromeda galaxiaren alde egon daitekeen jarrera berean. Ohar bera egin

daiteke Arbeloa-z, eta zerrenda luze batetan eman litezkeen beste ehun.

Herriaren parte handi batek garbiki erakutsi du bere nahia 1980 honetan: «Korrika» horretan, Tolosa-ko «Kilometro»C etan, udaberrian antolatu ziren lau manifestazio gaitzetan, Hegoaldeko lau hiriburuetan. Herri xeheak euskara pizturik ikusi nahi luke.

Baina aginteak (Gasteiz-en, Iruñea-n eta Baiona-n) ez du ezer sendorik egiten nahi hori mamitzeko. Telebista kate bat euskaraz izan beharrean, minutu bat ere ez dugu (edo epsilon dugu, bego). Hizkuntzaren zabalketarako tresna nagusia euskararen kontra dago, Francoren garaietan bezalaxe.

Ia-ia gauza berbera gertatzen da irratien mailan: % 95, edo gehiago, gaztelaniaz eta frantsesez ari dira. Eta «Gasteiz-Vitoria», «Iruña-Pamplona», eta antzekoak, esanez barre-gura besterik ematen ez dutela ohartu ez direnei, hitz hau bakarrik: «Para los tontos no hay gloria».

**E**rrotulazio bera aurrera eramateko gauza ez dira izan gure udaletxe «abertzaleak». «Ahaztu» egiten omen zaie behin eta berriz....

Euskal Prentsaren egoera ez da hobe. «Anaitasuna» eta «Argia» nekez ari dira irauten. Eta euskal egunkari bat ateratzeko asmoari berari, zorakeria deritzote denek. Denok irentsia dugu, dirudienez: eguneroko berriak gaztelaniaz edo frantsesez. Eta kito.

Kantaldiak ere, ezari ezarian, erabat ari dira aldatzen. Eta «pueblos de España»ko kantari-multzoen kantaldiek gero eta harrera hobe dute; «sano regionalismo español» honen pizkundeari dagokion bezala.

Gaztelaniaz (eta euskaraz ere bai) kantatzea gero eta hobeki ikusten da: oso «progre» bihurtu da esku-zartaka kantatzea, eta gero euskaraz ere bai. Noski! Baina honek 1890-ra eraman gaitu, eta «progre» zertan den ez da ageri. «Regionalista español» zertan den bai, jakina.

Euskarak gaur arte ikutzen ez zituen alorrak, ikutu ote dituen galdegin daiteke. Eta ezetz erantzun behar da. Futbol-partidu bat bederen euskaraz hedatzea, sekula ez da gertatu. Eta euskaraz hasiak ziren sailak, erdara batura itzuliak dira berriro. PUNTO Y HORA hau berau ere, ez da oraindik % 25-ra iritsi; nahiz Euskal Herrian, SIA-DEKO-k esan duenez, % 23 euskaldunak izan. PUNTO Y HORA-k berak ere «erdal» presioari eusten dio, gainerako aldizkari elebidun guztiek bezala.

**E**uskara, hitz batez, «gain-behera» doa. Eta miraria litzateke ez joatea. Gaurko egoera honek euskara «hiltzera» kondentzen du. Eta hau ez da hiletari izatea, eta abar. Hau ebidentzia besterik ez da.

1975-ak eskaini zigun aukera, PNV-aren erruaz (euskal indarrei dagokienez, besteetatik ez baike-nuen inoiz ezer onik espero) galdu dugu. Eta bost urte honetan, ebidentziraino ikus daitekeenez, euskararen aldeko mogimendu itzaropengarri hura, pikutara joan da.

Galdera bakarra hau da: erre den belaunaldi horren ondokoek, eta urte hauetako deskalabroan parte hartu ez dutenek, izango ahal dute indarrik aski sua pizteko?

Ez dakigu. Inork ez daki. Baina, honetaraz gero, euskarak luzaz berez irauterik ez du. Eta, zinez, «alea jacta est» esateko mementu larria ez da urrun.